

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoak Community aurkeztu du, arte eta kultur zaleen komunitate handia

XX. Urteurrena duen honetan, Guggenheim Bilbao Museoak Community aurkeztu du, arte eta kultur zaleen komunitate berria: Museoaren publiko zabal eta anitza bilduko du, eta haiekin harreman dinamiko bat edukitzeko aukera emango dio erakundeari, hainbat abantaila eta eduki pertsonalizatuen bidez.

Inauguratu zenetik gaur egun arte, Museoak Kide Korporatiboz eta Museoaren Lagunez osatutako sare irmo bat izan du, erakundearen erroak eta sendotasunaren adierazle direnak, 20 urteko ibilbidearen ondoren. Kolektibo horiek Community erkidegoaren parte izatera pasako dira orain, eta funtsezko papera beteko dute bertan; langabeei Museora doan sartzeko aukera ematen dien Erdu programako erabiltzaileak ere komunitate horretan egongo dira, hirugarren talde batekin batera: Museoaren jardueren inguruko informazioa eta pizgarriak jaso nahi dituzten mundu osoko pertsonak osatutako multzoa da azken hori. Erakundearen helburu nagusia publikoa erakusketetara bertaratu dadin sustatzea den arren —hori baita funtsezko esperientzia eta Museoaren izateko arrazoia—, Jarraitzaile delakoek osatutako kolektibo berri hori fidelizatzeko baliabide birtualek garrantzia berezia izango dute.

Munduari zabaldutako gune berri horren xedea publikoarekin harreman erraz eta egonkorra ezartzea da, eta horretarako, eduki baliotsuak eskaini eta parte-hartzea bultzatuko da. Alta emateko, nahikoa da harremanetarako oinarrizko datuak erregistratzea, webgunearen bitartez edo Museora etorrira; hori egin ondoren, erabiltzaileak komunitatearen barruan egongo dira jada eta abantailez gozatu dezakete: Museoaren arte- eta hezkuntza-programazioaren inguruko informazioa jaso, hurrengo erakusketen ikus-entzunezko edukiak ikusi, Museora datozenean lehentasunezko txarteldegitik igaro edo jardueretan eta Denda-Liburudendako produktuetan noizbehinkako promozioak eduki.

Jarraitzaileek jasotzen dituzten onurak nabarmen zabaltzen dira Lagunen kasuan; azken horiek dituzten abantaila eskusiboek gain (Museora doan eta nahi beste aldiz sartzea, deskontu iraunkorrak jarduera guztietan eta Denda-Liburudendan, jarduera eskusiboak, deskontua beste kultur erakunde batzuetako sarreretan, edo Guggenheim sareko beste Museoetara doan sartzea), modu automatikoan Communityko kide izatera igarotzen direnean, Lagun txartel berria jasoko dute etxean; horrekin, ilararik egin gabe Museoan zuzenean sartu ahalko dute, Atrioko sarbidean instalatutako teknologia berriari esker.

Era berean, Communityko kide guztiek (Kide Korporatibo, Lagun zein Jarraitzaileek) arreta pertsonalizatua eskaintzen dien mahai bat dute gaurtik aurrera, bai eta lehentasunezko txarteldegien bitartez sartzeko aukera ere.

Communityren sorrera Museoaren Plan Estrategikoaren baitan

Erakundearen XX. Urteurrenaren baitan gaur abiarazi den komunitate kontzeptu berriak bat egiten du 2015–2017 Plan Estrategikoarekin; azken horretan jasota zeuden, alde batetik, Museoek betetzen duten paper berriaren eta eraldaketa digitalaren erronkaren inguruko gogoeta sakona, eta bestetik, “Museoarekin lotura duten kolektiboekiko harremanaren gaineko ikuspegi berritua” eta “Estimuan oinarritutako sare bat sortzea”.

Kontenplazio-leku izatetik gune hibrido izatera igaro dira museoak: teknologia digitala bisitariaren esperientziari gehitu zaio, eta haren parte-hartzea bilatzen du. Ildo horretatik, Guggenheim Bilbao Museoa eraldaketa digital sakona jasaten ari da, ezagutza sortzeaz gain hura partekatzeko helburuarekin; izan ere, arte- eta hezkuntza-programazioaren dinamikotasunari esker, eduki desberdinak sortzen dira hainbat formatutan.

Esperientzia fisikotik haratago esperientzia birtual interesgarria gauzatzeko eremu bat dagoela onartu ondoren, Museoak proiektu honetan lanean jardun du azken bi urteetan, arte eta kultura eskuragarri ipintzeko helburuarekin, sartzeko oztoporik gabe; komunikazio pertsonalizatuaren bitartez betetzen du xede hori, euskaraz, gaztelaniaz nahiz ingelesez. Museoak abiatutako bide hori gaur zertu da, Communityren sorrerarekin.

Komunitate oso ikusgarria

Kontzeptu berriak garapen grafiko propioa du. Irudi modernoa da, aldakorra forma eta kolore aldetik, eta Frank Gehry-k diseinatutako eraikinaren hiru piezen ausazko elkarketatik sortu da.

Bereizgarri kontzeptual eta grafiko hori Communityri dagozkion komunikazio-euskarri fisiko eta digital guztietara eramango da, eta Museoaren Lagunen nahiz Kide Korporatiboen irudia berrituko da horrela.





Jarraitzaile eta Lagunen onuren laburpena

Jarraitzaileak (doako modalitatea):

- Museoaren hileroko buletin digitala jasotzea, jarduera eta erakusketa guztiekin.
- Museoaren sarrera lehentasunezko txarteldegian erostea, ilara orokorra ekidinda.
- Erakusketen inguruko online eduki eskusiboak ikusteko aukera.
- Noizbehinkako promozioak Denda-Liburudendan.
- Inkesta eta zozketetan parte hartzea.

Lagunak (urtean 20 eurotik aurrerako kuota). Aurretik aipatutako onurez gain:

- Lagun txartelarekin Museora doan eta zuzenean sartzea, sarrera ateratzeko eta ilara egiteko beharrik gabe.
- Bidaia, gidaridun bisitaldiak, tailerrak eta Lagunentzako jarduerak eskusiboak.
- Museoaren aldizkaria eta online informazio eskusiboak.
- Deskontu iraunkorrak jarduerak guztietan, Denda-Liburudendan eta Museoko kafetegian eta jatetxeetan.
- Deskontuak beste kultur erakunde batzuetan: Bilboko Arte Ederren Museoa, Arriaga Antzokia eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa.
- Sarrera doan Guggenheim Museo guztietan.

Bilbo, 2017ko ekainaren 20a